

Ekintza agenda

Otsaila- martxoa

**ETXEKO ETA
TXIMINIETAKO SUTEAK
EKIDITEKO HITZALDIA**



Otsailak 14
18:00
Iriarte Aretoan

Otsailak 16
22:30
Arrikutz
elkartean



**EUSKAL HERRIKO MUS
TXAPELKETAKO
KANPORAKETA**

**GAZTAINXOTAKO
BILERA**



Otsailak 26
20:00
Udaletxean

Martxoak 8
20:00



**EMAKUME EGUNEKO
AFARIA OLAGI
SAGARDOTEGIAN**
Izen-ematea herriko whatsapp-ean
eta udaletxean

**KANTU POTEOA ETA
AFARIA**

Izen-ematea herriko whatsapp-
ean
eta udaletxean



Martxoak 15
20:00
Plazan eta
elkartean



Arama zaitez aldizkaria
18. alea | 2024 Otsaila

BADATOR KORRIKA!

Martxoaren 23an igaroko da Aramatik.



Aramako Udala

Iriarte 2 – 20248 Arama (Gipuzkoa)
943 88 07 39 | udala@arama.eus



Korrika batzordeak egitarau oparoa antolatu du!



Martxoak 14, osteguna:

18:00 **Pintxo jana**, Altzagako Ertoetxen.

19:00 **Bizkarsoro** film emanaldia. Altzagako Ertoetxen.

Martxoak 15, ostirala:

18:30 **“Emakume gazteak eta musika”** solasaldi eta emanaldia Ianire Aranzabe, Esti Markez eta Eider Saez. Itsasondoko Bizi Nahi elkartean.

20:00 **Kantu poteo eta afaria**. Aramako Arrikutz elkartean.

Martxoak 22, ostirala:

17:00 **Korrika txikia**, Aramatik- Itsasondora

18:00 **Askaria eta jolasak**, Itsasondoko frontoian

Martxoak 23, larunbata:

12:00 **Korrika**

13:00 **Triki poteoa**, Itsasondotik zehar.

14:00 **Herrien arteko bazkaria**, Itsasondoko frontoian.



korrika.eus



Herri-batzarraren laburpena

Urtarrilaren 23an lehen herri batzarra egin genuen, udalak hartutako erabaki zein hasitako proiektuei buruzko informazioa zuei helarazteko. Hona laburpena:

- Udalaren 2024ko aurrekontua: 465.500€
- Zabor tasaren eta ibilgailu zergaren %4ko igoera 2024an
- Basogintza plan berria: herriko basoak atera, zaintza plangintza egin eta lurren erosketa
- Udal-arkitekto plaza berria: hirigintza zerbitzua indartzeko asmoz
- Apaiz-etxean taberna/jatetxea jartzeko oinarriko proiektua egingo du EITZEN estudioak
- Udaletxe-zaharra birgaitu eta bertan etxebizitzak egiteko hausnarketa prozesua hasi du udalak. EITZEN estudioak aurre-proiektua egingo du.
- I. sektoreko plan partziala: gaur egun etxebizitzak egiteko dauden zailtasunak ikusirik, plan partziala aldatzeko hausnarketa prozesua hasi du udalak.

Gai hauei buruz informazio gehiago daukagunean, berriz ere batzar batera deituko zaituztegu. Bertan elkartuko gara!

Etxeko eta tximinietako suteak ekiditen



Azkenaldian, herrian, tximiniak eragindako hainbat suteen aurrean sorturiko kezka ondoz, udalak hitzaldia antolatu nahi izan du. Iñigo Aldasoro, Goierriko Su Eskolako arduraduna izango dugu, **otsailaren 16an, 18:00etan** Iriarte Aretoan. Etxeetako sute arriskuen eta tximiniak eragindako suteen inguruan arituko zaigu. Herritarren interesekoa izango delakoan, bertan elkar ikustea espero dugu.